

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a

634. zenbakia

ZERGAK/ Trakzio Mekanikoko Ibilgailuaren Gaineko Zerga 9.052 ibilgailuk ordainduko dute aurten

Udalak 849.000 euro inguru jasoko ditu herriko ibilgailuen zergarengatik

EDU MENDIBIL

Bergarako Udalak 849.046 euro jasoko ditu aurten ibilgailuen gaineko zergarengatik. Maiatzaren 31n bukatu zen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuaren Gaineko Zerga ordaintzeko epea: 9.052 errezibo tramitatu ditu Udalak.

Hasiera baten, 9.052 ibilgailu zerga kobratuko du Udalak. Esan bezala, egindako aurreikuspenaren arabera, 849.046,74 euro jasoko ditu Udalak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuaren Gaineko Zergarengatik. Zerga ordaintzetik libre dauden beste 292 ibilgailu dira herrian, Udaleko iturrien arabera. Maiatzaren 31n bukatu zen zerga ordaintzeko epea.

Ibilgailuen kopuruak gora egin du urtetik urtera Bergaran.

2004ko urtarrilean 8.479 ibilgailu erroldatuta zeuden. Orduko sailkapena honakoa zen: 7.329 turismo, 346 kamioi, 345 motozikleta, 227 ziklomotor, 114 traktore, 107 erremolke eta 11 autobus.

ISUNAK BEHERA IAZ

Bestalde, Udaltzaingoko datuen arabera, jarritako isun kopuruak behera egin zuen joan den urtean. 1.168 isun jarri zituzten Bergarako udaltzainek, 2003an baino %34 gutxiago. Herriko zenbait kaletan obra ugariak zirela eta, eskuzabaltasunez jokatu zuten udaltzainek.

2004an isunetan kitatutako 21.544 euroetatik, 9.432 euro jaso ditu Udalak.

Francisco Barquero erretiratu ondoren, gaur egun 14 udaltzain dira Bergaran. Beste hiru kontratatzeko prozesua hasi zen martitzenean.



Ibilgailuen kopuruak gora egin du azken urteotan.

BERRIGARA

Auditorioaren gaineko txostena irailan gertu izango du Udalak

E.M.

Udaleko Gobernu batzordeak Ereite enpresa kontratu du Seminario auditorioa eta Zabalotegiko aretoaren berrikuntza abian jartzeko. Dakizuenez, Seminario auditorioa Udalaren aspaldiko egitasmoa da. Azken urteotan nabaria izan da ikuskizunetako areto egoki baten beharra, are gehiago joan den martxoan. Novedades aretoa itxi zutenetik. Gauzak horrela, Udalak lehenbailehen auditorioaren proiektuari eutsi nahi dio. Gaia Hirigintza batzordean landu dute eta Gobernu batzordeak ere oniritzia eman dio dagoeneko.

Esan bezala, Ereite enpresa bi proiektuen gainean lanean hasiko da berehala. Seminarioan egin beharreko lanen txostena irailarako eskuartean izatea nahi du Udalak.



BERRIGARA

Seminarioko elizan auditorioa egin nahi dute. Irudian, *Aupa, Etxebeste!* filmatu zutenean.

DIPUTAZIOAREN LAGUNTZAREKIN

Udalak dirulaguntza jasoko du Diputaziotik Errege Seminario auditorioa egiteko. Egokitzen lanekin lehenbailehen hastea

da Udalaren asmoa.

Auditorioa heldu bitartean, Zabalotegiko aretoa erabiltzeko moduan jarri nahi dute, erabilpen askotarako aretoa bihurtuz.

LABUR

Irizar jauregiko KZguneak hainbat ikastaro eskaintzen ditu uztailan zehar

KZguneak hainbat ikastaro eskaintzen ditu uztailan. Besteak beste, Interneteko oinarritzko ikastaroa eta posta elektronikoa egiteko aukera dago. Hainbat ordutegi daude aukeran. Edozein argibidetarako 943 76 73 24 zenbakira jo dezakezue.

Bedelkarren udako zozketan 44.631, 73.473 eta 24.462 izan dira saritutako zenbakiak

Bedelkar herriko dendarien elkarteak antolatutako udako zozketan honako hauek izan dira saritutako zenbakiak: 44.631, 73.473 eta 24.462.

44.631 zenbakidun txartelak 500 euroko erosketa bonoa jasoko du; 73.473 zenbakiari 300 euroko erosketa bonoa egokitu zaio eta, azkenik, 24.462 zenbakiari, 200 eurokoa.

Ordutegi berria liburutegian eta irakurtzeko gonbitea 'Biblioporrak' gidarekin

Udal Liburutegiak ordutegi berria izango du uztailan. Astelehenean eta eguenetan 08:00etatik 20:00etara izango da zabalik eta martitzen, eguazten eta egubakoitzetan, 08:00etatik 13:30era. Zapatuetan itxita izango da.

Inguruko herrietako liburutegiarekin lankidetzan, *Biblioporrak* izeneko gidatxoak kaleratu dute. Liburuez gain, DVD eta CD eskaintza ere jaso dute aurtengoan.

SHOTOKAN KARATE-DO



Markel Larrañaga

4. Espainiako txapelketan
1. Euskadiko txapelketan
1. Gipuzkoako txapelketan



Rakel Blanco

2. Euskadiko txapelketan
2. Gipuzkoako txapelketan



Jon Gonzalez

3. Euskadiko txapelketan
1. Gipuzkoako txapelketan



Miren Laskurain

3. Euskadiko txapelketan
1. Gipuzkoako txapelketan



Unai Zabarte

4. Euskadiko txapelketan
1. Gipuzkoako txapelketan



Kepa Odriozola

4. Euskadiko txapelketan
2. Gipuzkoako txapelketan



Julen Arana

3. Euskadiko txapelketan
1. Gipuzkoako txapelketan



Ainhoa Zafra

2. Gipuzkoako txapelketan



Haizea Iñarra

3. Gipuzkoako txapelketan



Jon Urkia

3. Gipuzkoako txapelketan



Ane Vicente

4. Gipuzkoako txapelketan



Aitziber Zabarte

4. Euskadiko txapelketan
5. Gipuzkoako txapelketan



Mikel Aginagalde

2. Gipuzkoako txapelketan



Pablo Elkororibe

3. Euskadiko txapelketan
1. Gipuzkoako txapelketan

Bergarako Shotokan Karate-Dok taldeko zuzendaritzaren izenean,

ZORIONIK BEROENAK

ikasle guztiei aurtengo emaitza bikainengatik .

Irailan ikusiko dugu berriz ere elkar!

Eta 10 urte hauetan gurekin egon zareten guztioi

ESKERRIK ASKO



ELKARRIZKETA

NAGORE JIMENEZ/ ESPAINIAKO IDAZKARIEN LEHIAKETAN SARITUTA

“Besteak beste, jendearekin ondo moldatzeko gaitasuna beharrezkoa da idazkari lanetarako”

EDU MENDIBIL

Ekainaren 16an, 31 urte betetzen zituen egunean, sari ederra jaso zuen Nagorek: bigarren sailkatu zen Manpower erakundeak antolatutako idazkari lehiaketan, Madrilen. Antzuolako Balzers-Elay enpresan zuzendari-tzako idazkari dihardu.

Zer nolako probak izan zenituzten Madrilen?

Lau proba izan ziren: idatzikoan kultura orokorreko gaiak, idazkaritza lanekoak, kontabilitatea eta ekonomia jorratu behar genituen; informatikoan Excel programako ariketa bat agindu ziguten; hizkuntzetako proba ere izan genuen [ingeleza eta frantsesa menperatzen ditu Nagorek] eta, azkenik, taldeko proba bat, konfliktuen negoziazioa eta soluzioa lantzeko.

Pozik emaitzarekin, ala?

Bai, etxean animatu ninduten

lehiaketara joateko eta gauzak ondo atera zaizkit. Lehiaketako lehenbiziko fasea Bilbon jokatu zen eta finala Madrilen; ondo pasanuen finaleko egunean. Probak bigarren maila baten geratu ziren, eta izan genuen lehiakideok elkar ezagutzeko aukera. 400 lagun inguruk hartu dugu parte. Gizonezkorik? Ez, bakarra uste dut aurkeztu zela baina ez zen finalera iritsi. 15 lagun heldu ginen finalera. Itxaso Urtuellako lagun bat hirugarren postuan sailkatu zen. Besteak beste, 1.200 euro, aste bukaera bat Malagako *kor-tijo* baten eta liburu sorta bat ira-

bazi ditut. Esperientzia ederra izan da.

Zeintzuk dira idazkari baten beharrezko ezaugarriak?

Hiru aipatzekotan, jendearekin ondo moldatzeko gaitasuna, honekin lotuta egoera bakoitzean egoten jakitea eta, azkenik, gaiei lehenetsia emateko kapazitatea.

Eguneroko jardunean lanik gustukoena? Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Zorionez, askotariko lanak izaten ditut, ez daukat aspertzeko motiborik; batean azoka antolatzea tokatzen zait eta hurrengo egunean gure web gunearen gaineko lanen bat agian. Zenbaitetan ere kanpora irteten gara eta hori ondo dago. Gutxien zera gustatzen zait: gure lanpostuari buruzko topikoak.

Ezinbesteko tresna lanerako?

Ordenagailua. Eta agenda ere bai. Biak behar beharrezkoak dira gaurko lanean.

“Probak bigarren maila baten geratu ziren, eta ondo pasanuen finaleko egunean, Madrilen”



E.M.

San Kristobalgo jaiak asteburuan

Ohiko pinu jartzearekin eta txokolate janarekin San Kristobalgo jaiak hasiko dira gaur gauean, 22:00etan.

Bihar, zapatua, Gardoki taldearekin erromeria izango da, 23:00etan eta domekan, San Kristobal egunean, autoen bedeinkapena izango da 12:00etako meza nagusiaren ostean. Erretiratuentzako luntxa eta Moises Azpiazu dantza taldearen saioa ere iragarri dituzte domekarako. Goizean zehar Alustiza eta Astorkia trikitilariak arituko dira giroa alaitzen.



LABUR

Odol ateratzea egingo dute eguaztenean Seminarioko lokalean, ohiko ordutegian

Bergarako Odol Emailen Elkarteak aditzera eman duenez, eguaztenean, uztailaren 13an, odol ateratzea egingo dute Seminarioan, 18:30ean hasita. Odol emaileri bertara joateko deia egiten diete elkarteko arduradunek.

Uztailaren 27an ere odol ateratzea egingo dute eta abuztuan bi izango dira, hilaren 10ean eta 24an, hain zuzen.

Arantzazuko santutegira erromesaldia egingo da datorren uztailaren 25ean

Ohikoa denez, Arantzazuko santutegira erromesaldia egingo da uztailaren 25ean, goizez. Ondoren, arratsaldean, Loiolako santutegira joateko aukera ere izango da egun horretan.

Bergaratik autobusa aterako da, 09:30ean. Autobuseko txartelak 6 euro balio du eta bazkarirako txartelak 16 eurotan daude salgai Agirrebeñan (San Antonion), Zerkauzin (Ozaetan) eta Barrenkaleko Zatoia dendan.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

FUTBOLA/ Gizonezkoen kopako eta ligako finalak uztailaren 15ean izango dira

Potzu-Ogizun senior mailako nesken finala gaur Ipintzan

EDU MENDIBIL

Potzu Ta Zapaburuak eta Ogizun futbol taldeak aurrez aurre izango dira gaur Ipintzan, senior mailako nesken finalean. Martitzenean jokatu-tako finalerdietan, Potzuk Ou Pitxu Ou! kanporatu zuen (5-0) eta Ogizun Pentol's Team taldeari nagusitu zitzaion (5-1).

Senior mailako nesken txapelketan zortzi talde izan dira lehian eta, esan bezala, Potzu Ta Zapaburuak eta Ogizun taldeak iritsi dira gaurko finalera. Finala 20:30ean hasiko da eta aurretik hirugarren postua eskuratzeko partidua jokatu dute Ou Pitxu Ou! eta Pentol's Team taldeek, 19:30ean.

KOPA ETA LIGA GIZONEZKOETAN

Bestalde, senior mailako gizonezkoen txapelketa azken txanpan dugu. Nobedade gisa kopa txapelketa ere izango da aurten. Bihar, zapatua, kopako final laurdenetako partidua izango dira Ipintzan, 09:00etan hasita. Kopa-



JOSE LUIS BEITIA

Potzu Ta Zapaburuak (argazkian) Ou Pitxu Ou! kanporatu zuen martitzenean.

ko final erdiak, berriz, eguaztenean, hilaren 13an jokatu dira, 19:00etan.

Liga txapelketari dagokionez, final erdiak astelehenean, hilaren 11n jokatu dira, 19:00etan. Kopako zein ligako finalak hurrengo egubakoitzean, uztailaren 15ean, jokatu dira: Kopakoa 18:45ean eta ligakoa 20:00etan.

LEHENBIZIKO TXAPELDUNAK

Aurreko egubakoitzean izan ziren Ipintzako lehen finalak: neskei dagokionez, Txikipung eta Lanrroberrak izan ziren garaile, albin eta kadete mailetan hurrenez hurren. Gizonezkoen beterano mailan, Betikuak eta Ezinleike (38 urtetik gorakoetan) taldeek irabazi zituzten finalak.

Igeri Elkartek emaitza onak lortu zituen Gipuzkoako Txapelketan

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko ordezkariak Gipuzkoako Txapelketan hartu zuten parte asteburuan, Ordizian. Junior mailan, Nielka Ibaruren 2.a izan zen 100 bular estiloko proban eta 4.a 400 estiloetan; Mikel Labaka, berriz, 5.a 100 tximeletan, 6.a 50 m libreetan eta 8.a 100 m-koan; promesa mailan, Neritzel Albusua 3.a izan zen 100 bularretan, 5.a 200 estiloetan eta 8.a 200 m-koan; junior mailakoetan, Ana Balentziaga 3.a 200 libreetan, 5.a 100 m-koan eta 6.a 50 m-koan; eta Elisa Kortabarria 19.a izan zen 50 eta 100 m libreetan.

Neritzel, Ana, Elisa eta Amaia Azpeitia zortzigarren sailkatu ziren errelebo probetan: 4x50 eta 4x100 libreetan eta 4x50 estiloetan lehiatu ziren.

Gizonezkoen taldeak seigarren postua lortu zuen 4x50 estiloetako proban. Labaka eta Ibarurenekin batera, Kepa Irizar eta Unai Alberdi aritu ziren.

ASTE BUKAERAN GALDAKON

Aste bukaeran Euskadiko Txapelketa jokatu da Galdakaon eta han izango dira Labaka, Ibaruren, Erik Gorostiaga, Ana Balentziaga, Amaia Azpeitia, Ainhoa Goienetxea eta Irati Fernandez.



AMAIA ANDUEZA

Ezkerrean, Nielka Ibaruren.

LABUR

Bergarako erregional mailako taldea astelehenean hasiko da entrenatzen

Erregional mailako Bergara KEko futbol taldea astelehenean hasiko da denboraldi berria gertatzen. Mailaz jaitsi ostean, preferente mailara igotzea izango da bergararren helburu nagusia. Josu Zubia arrasatearra dugu taldeko entrenatzaile berria. Taldeak baja ugari izan ditu, Markel Egaña, Oskar Maiztegi, Jon Alzola, Aitor Berraondo, Josu Zubikarai edo Julen Berraondorenak tartean. Fitxaketa berri ugari egin beharko dituzte.

Uda denboraldian igerilekua erabiltzeko txartela atera du Kirol Zerbitzuak

Uda denboraldirako txartela ateratzeko aukera eskaintzen du Kirol Zerbitzuak: 18 urtetik beherakoek 31,40 euro eta nagusiek 47,50 ordaindu beharko dituzte. Era berean, hamar bainutarako bonuak jarri dituzte salgai. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian. Aste barruan 07:00etatik 21:00ak arte izango da zabalik igerilekua. Aste bukaeretan eta abuztuan, berriz, 09:00etatik 21:00ak arte izango da zabalik Agorrosingo igerilekua.

Pol-Poleko beteranoek Jaizkibelera irteera egingo dute datorren domekan, hilaren 17an

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek uztailaren 17an Jaizkibelera joateko irteera iragarri dute. Bestalde, irailaren 9tik 11ra Pirinioetako Aran bailarara joango dira.

Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan, 19:00etatik 20:30era edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.



Hurtado eta Izquierdo garaile frontenisean

Candido Hurtado eta Jose Izquierdo arrasatearrek eskuratu zuten frontenis txapelketa. Angiozarko Arbiaska pilotalekuan jokatuak finalen, 30-24 irabazi zieten Eder Arraiz eta Asier Delgadori. Hirugarren postua eskuratzeko partiduan Iñaki Sanchezek eta Kepa Garciak 25-23 irabazi zieten Carmelo Barcala eta Hector Saezi.

BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

MUSIKA/ Fly Shit, Supercools eta Al Infierno En Goitibera taldeek ere joko dute, 21:00etan

Spermbirds talde alemana bihar gaztetxean

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, kontzertu berezia egingo dute gaztetxean. Alemaniako aspaldiko hardcore talde esanguratsua bat, Spermbirds, eta Bergara eta Laudioko beste hainbat talde: Fly Shit, Supercools eta Al Infierno En Goitibera.

Punka eta hardcorea musika estilo gogorak dira, baina zale asko izan dituzte gure artean. Batez ere, 80ko hamarkadako taldeek jartzen zieten oilo-ipurdia hainbat lagun. Ezagunenak AEBetakoak ziren arren, European ere talde garrantzitsuak zeuden. Horien artean, Spermbirds. Talde horretako partaideak hasieran punk-rocka egiten hasi ziren Die Walter Elf izenpean. Gerora, berriz, doinu gogorragoak egiten hasi ziren eta Spermbirds hardcore taldea sor-

tu zuten. Hori 80ko hamarkada lehenengo erdialdean izan zen.

KANTU INDARTSU ETA ESANGURATSUAK Hardcorearen klasiko bilakatu diren hainbat lan kaleratu zituzten (*Something to prove, Nothing is easy...*). Punk eta hardcore bizibiziaz egiten zuten, azkarra eta indartsua. Horren ostean, soinu indartsuagoa lortu zuten, agian metal kutsu handiagoa duena -*Common thread, Eating glass, Thanks, Joe...*. Lee abeslari

Hardcorearen klasiko bilakatu diren hainbat lan kaleratu ditu Spermbirds taldeak

kementsuaren ahotsak izaera berezia ematen zion taldeari, eta 90eko hamarkada hasieran taldea utzi zuenean asko igarri zen. Izan ere, bi disko kaleratu ostean jotze-ari utzi zioten.

Orain dela urtebete, bost lagunak (Markus, Frank, Roger, Bepo eta Lee) elkartu eta *Set an example* disko indartsua kaleratu zuten. Kontzertuak ematera bueltatu dira, eta lehenengo aldiz Euskal Herrira etorriko dira.

Biharko kontzerturako sarre-
rak 6 eurotan salduko dira.

THE HOUND DOGS POL-POLEN

Bestalde, The Hound Dogs eta Blue Station Band taldeek joko dute bihar, zapatua, Pol-Pol tabernan, 23:00etan. The Hound Dogs taldeak Elvis Presleyren kantuen bertsioak eskainiko ditu. Blue Station Bandek *rhythm-and-blues* estiloko kantuak joko ditu.



Spermbirds taldeko kideak.

COMMON THREAD



Gonzalo Tejada Special Trio gaur Espoioian

Udako gauak programazioaren barruan, gaur, egubakoitza, Gonzalo Tejada Special Trio taldearen jazz kontzertua izango da Espoioian. Bill Evansen piano jole ospetsuaren bertsioak eskainiko dituzte. Gonzalo Tejada kontrabaxuarekin batera Iñaki Salvador (piano akustikoa) eta Mikel Andueza (saxoak) arituko dira gaur. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

Hurrengo asterako, uztailaren 15erako, Tr3s Hombres taldearen *rhythm-and-blues* emanaldia iragarrita dago Espoioian. *Udako gauak* programako azken kontzertua uztailaren 22koa izango da: Iruñeko Teresa Zabaltza 5et taldeak jazz doinuak ekarriko ditu Espoioira.

LABUR

Gaztetxoei zuzendutako marrazketa eta pintura eskolak uztailean, Bearteko egoitzan

Beart Bergarako artisten elkarteak antolatuta, 5 eta 15 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako marrazketa eta pintura ikastaroa izango da uztailean zehar. Eskolak aste barruan izango dira, Boluko egoitzan, 10:15etik 12:15era. Argibideak 653 71 53 82 zenbakian.

'Sokamuturra' argazki erakusketa, DJ emanaldia eta hitzaldia Aroztegi aretoan

Eduardo Arrillagaren *Sokamuturra* argazki erakusketa ikusgai dago Aroztegin. Bihar, zapatua, Ene! DJ-a arituko da bertan, 19:00etatik 22:00etara. Bestalde, Iñaki Azkunek sokamuturraren gaineko hitzaldia emango du egubakoitzean, hilaren 15ean, 20:00etan.

Txalaparta ikastaroa astelehenetik aurrera, Jardun euskara elkartearen eskutik

Jardunen eskutik, txalaparta ikastaroa izango da Bergaran uztailaren 11tik 21era. Eskolak astelehenetik eguenera bitartean izango dira, 19:00etatik 20:30era, Arrizuriagan. Interesatuak Jardunera, 943 76 36 61 telefonora jo dezakete argibide eske.



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610.259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

OPORRALDIA/ Aldi baterako egonaldiak adinekoendako egoitzetan

Adinekoen zaintza eta familien atsedena

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak zein Foru Aldundiak programa bereziak eskaintzen dituzte euren mende adineko pertsonak dituzten familiendako. Horrela, adinekoak zaintzapean lagatzen dituzte denboraldi batez, eta eurek oporraldia lasai pasatzeko aukera daukate.

Euskal Herrian egonaldiak bi egun eta hilabete bitartekoak izaten dira; eta ezohiko kasuetan bi hilabetera ere hel daitezke. 60 urtetik gorako pertsonendako dira egonaldiak eta familien mende egon beharko dute; gehienetan gutxitasun fisikoak zein psikiakoak dituztelako, adinak berez eragiten dituen murrizpenez gain.

Egonaldi horien helburua da familiari atsedendia ematea adineko pertsonak zaintzeko lanetan. Horretarako, adinekoa aldi baterako egoitza batera eramaten dute zaintzaileek oporraldia egin dezaten. Gerta liteke beste arrazoren bategatik zaintzarako denborarik ez izatea, eta horregatik eskatzea aldi baterako egonaldia.

Eguneroko gauzak egiteko eragozpenak dituztelako etxean bakarrik egon ezin duten adinekoek hartuko dute parte progra-

ma honetan; ohiko etxean bizitzeko behar duten laguntza aldi baterako etenda geratzen denean, hain zuzen ere.

Hala ere, eskariak aurkeztutakoan hainbat oinarri hartuko dira kontuan programan onartu ahal izateko: gizarte eta familia egoera; etxebizitzaren egoera eta sarrera-irteerarako zailtasun maila; ezintasun fisiko eta psikiakoak; eta egoera ekonomikoa.

Aurten tarifak mantendu egin dituzte; eta ordaintzerakoan kontuan hartzen dute adinekoek jasotzen duten pentsioaren zenbatekoa. Hilean 548,10 eurotik beherako pentsioa kobratzen dutenek eguneko 14 euro ordainduko dituzte; hortik gora jasotzen dutenek, berriz, 22 euro egunean.


AURTEN BERGARAN LAU

Aurten hamar egoitzak eskaini dute aldi baterako egonaldirako aukera: Donostian bost daude eta bana Ordizian, Legazpin, Arrasaten, Irunen eta Oreretan.

Hala ere, Bergaran lau eskari baino ez dira jaso Udalean, eta hauek herrian bertan geratzeko aukera izango dute. Mizpirualde egoitzan hainbat toki hutsik geratu dira aurten eta aldi bateko egonaldiak bertan egiteko aprobeztatuko dute.



Aurten Bergarako Mizpirualde egoitzan egingo dituzte aldi bateko egonaldiak lau bergarrek.



Santamainako jaietan jokoak erretiratuendako

Santamainako jaiak hurrengo asteburuan izango badira ere, jaietako egitarauan bada aste honetarako gauzarik. Uztailearen 11tik 15era bitartean tute, mus, briska, toka, igelaren joko, bolo eta billar txapelketetako kanporaketak izango dira erretiratuendako egoitzan. Egubakoitzerako, hilaren 15erako, erretiratuendako ibilaldi neurtua antolatu dute; 10:30ean irtengo dira egoitzatik. Arratsaldean, txapelketetako finalak jokatuko dituzte, 16:30ean hasita.

LABUR


Erretiratuendako irteera Miramongo parkera

San Joxepe elkarteak erretiratuendako irteera iragarri du. Uztailearen 20an izango da bidaia eta Donostiako Miramongo parkera joango dira. Bertan Kutxaespazio zientzia museo bisitatu dute eta ondoren, Donostian egingo dute bazkaria. Izena emateko azken eguna uztailearen 20a da; eta bakoi-tzak 33 euro ordaindu beharko ditu irteera horretarako joateko. Egunean bertan 09:00etan dute hitzordua autobusetatik.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA

- HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
- UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ESTRESA
- EKIKADURA ARAZOAK
- AUTOESTIMA

Miriam Mujika 676 61 70 55 • Ainhoa Basurko 676 70 37 25
Aurrera edifizioa • Urtzaile kalea-1

MINGAINARITIRAKA



Amaia Mendizabal

UDALEKUETAKO BEGIRALEA

Herriko udaleku irekietako begiraleetako bat dugu Amaia. 20 urte ditu eta Psikologiako ikaslea da. Hirugarren urtez dihardu begirale, eta bere esanetan, pazientzia handia izatea eta umeak gustatzea ezinbesteko dira begirale lanean.

Zela portatzen zaizkizu neska-mutikoak?

Oraingoz, nahiko ondo. Dena dela, mutikoak bihurriagoak izaten dira, eta pixkanaka konfiantza hartzen dutenean, ez dira horren ondo portatzen.

Zer behar da begirale ona izateko?

Pazientzia handia, umeak gustuko izatea eta eurekin jolas egiteko gogo handia.

Umetan joaten zinen udalekuetara?

Bai; bi aldiz egon nintzen udaleku irekietan. Kanpora ere lau bat aldiz joan naiz, udalekuetara.

Txikitako oroitzen onena?

Oporrak; oporretan lagunekin jolasean ibiltzen nintzeneko oroitzen oso onak dauzkat. Udalekuetakoak ere bai, noski.

Eta txarrena?

Irailean eskolarako buelta; dena dela, gero, segituan hasten nintzen gustua hartzen eskolari ere.

Zure garaiko gustuko jolas bat?

Gomarekin eta sokasaltoan ibiltzen ginen gusturen.

Eta gaur egungo umeen gustukoak?

Gameboy eta horrelakoak; batez ere, mutikoen artean.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Kalera irtetea eta lagunekin egotea; izan ere, kanpoan ikasten dudanez, denbora laburra izaten dut eurekin egoteko.

Oporretarako planik egin duzu?

Oraindik ez, baina, beharbada, Galiziara joango naiz.

Ahal izatekotan, nora egingo zenuke bidaiaren bat?

Europa ezagutzera joango nintzateke.

Zerk amorratzen zaitu?

Jende faltsuak, nire bizkarretik gaizki esaka dabilen jendeak; harrokeriak ere amorratzen nau, besteak baino gehiago dela uste duen jende horrek.

Eta zerk pozten?

Inguruak pozik ikusteak.

Amets bat?

Munduak hobera egitea eta mundu osoan zehar bidaiatzea.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

MARIA DEL MAR URALDE

34 URTE / DENDAKO ARDURADUNA / TENERIFE

“Semeei euskara irakatsiko diet; oraingoz, haserretzen naizenean bakarrik egiten diet”

AINZANE IRIZAR

Orain dela dozena bat urte joan zen Maria del Mar Bergararik kanpora bizi izatera. Gaur egun bere senarra dena Madrilen bizi zen eta haraxe joan zen. Hiru urte egin zituen Madrilen bizi izaten. “Senarra Tenerifen bizi izandakoa zen eta Aratus-teetan, hara joan ginen; izugarri gustatu zitzaidan eta erabaki genuen Tenerifera joatea bizi izatera”. Orditik, orain dela bederatzi urtetik, hain zuzen ere, bizi dira Costa del Silencio herrian, irlaren hegoaldean.

Izen horrekin, toki lasaia izango dela pentsatu dugu, eta Maria del Mar-ek baieztatu egin digu: “Herri lasaia da Costa del Silencio; Bergara baino txikiagoa da. Kostan dago, arrantzale herri txiki bat da”.

Oporrak gainean ditugula kontuan hartuta, sekulako inbidia eman digu Maria del Mar-ek: “Hondartzara bost minutu dauzagu, oinez”, diosku.

Bizimodu oso lasaia dararamala azaldu digu, baina, asteburuak lasaiegiak ere badirela askotan: “Domekan pintxo eta tragoxka batzuk hartzera ateratzen bazara, inor ez da ibiltzen. Hemen lau taberna daude, gainerakoak turistendako tabernak dira. Pixka bat faltan botatzen dut lagunekin poteora ateratzea, adibidez, baina, horrelakoak lehen ere nahikoa eginda gaude; orain, bizimodu zeharo ezberdina daukat eta oso gustura nago”, azaldu digu Maria del Mar-ek.

Tenerifen, paisaiak harritu zuen lehendabizi Maria del Mar: “Hegoaldea, batez ere, oso lehorra da, ez dago mendirik eta hondartzak beltzak edo harrizkoak dira. Paisaiak oso bereziak dira”.

Kanariarrak, berriz, oso lasaiak direla kontatu digu: “Orokorrean, oso jende lasaia eta jatorra da hemengo; hori bai, jai zaleak dira. Oso ondo hartu gintuzten hasieratik; kontuan

“Arrantzale herri txiki bat da Costa del Silencio; Bergara baino txikiagoa da”

hartu behar da, dena dela, oso ohituta daudela hemen kanpoko jendea hartzera”. Turista asko geratzen da hantxe bizi izaten eta etorkin asko dago.

BI SEME DAUZKA

Ezkonduta dago Maria del Mar eta bi seme dauzka; nolabait, bere herriarekiko lotura mantentzeko edo, izen euskaldunak jarri dizkie biei: Alatz eta Gaizka. Lau eta sei urte dituzte.

“Haserretzen naizenean, euskaraz hitz egiten diet, baina, gainerakoan, nahikoa galduta daukat euskara”, diosku. Praktikatzeko aukera handirik ez duenez, geroago eta traketsago moldatzen dela kontatu digu. “Dena

dela, umei euskara irakasten dihardut”. Gaztelaraz berba egin dugu guk berarekin, eta kanariar azentua hartu duela igarri dugu.

BIDAIA LUZEA

Orain arte urtean behin etorri izan dira Bergarara familia eta lagunak bisitatzera. Orain, baina, bi urte daramate etorri gabe, eta aurtun ere ez dira etorriko; datorren urtean izan beharko du. “Urruti bizi gara eta bidaiak garestia izaten da, nahi eta nahi ez hegazkinean joan behar dugu eta”, diosku.

Familiakoek eta lagunak, baina, pagots ederra dute Maria del Mar Tenerifen, hondartza ondoran bizi izanda. Horixe esan digu, eta berak: “Ez pentsa, nahi nituzkeenak baino bisita gutxiago jasotzen ditut; nire ama eta ahizpa urtero etortzen dira, baina, gainerakoak ez. Eurendako ere bidaiak garestia da”.

Etorkizunaren gainean galdetuta, Maria del Mar-ek azaldu digu oso gustura bizi direla eta sekula ez dutela pentsatu Bergarara etortzerik bizi izatera.



Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

**GARRAIOAK
ANDUZU**
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043




Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

BONO FOTOA

San Martin plazatik Herri Lagunak kalera doan kantoian edo bide honen lehen aipamena 1505ekoa da. Zelan du izena: Laudantz, Itza ala Izagirre?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBIZAR



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

BERNARDO NUÑEZ zendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Bernardo!
Galderaren erantzun zuzena: **14 errege.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Principe txokolatezko gailetak

250 g-ko paketea

0,79 €

131 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

San Pedro jaiak prestatzen

Orain dela bi aste ospatu zituzten San Pedro jaiak Kalebarrenen, eta, berandu samar bada ere, hemen dakarkizuegu jai horietako argazki bat, 1977koa. Jaiak prestatzen ziharduen taldea ageri da argazkian, 1977ko ekainaren 19an, Kalebarrengo erreka barandan. Atzeko aldean, gaur egun Zurrategiko etxeak dauden tokian, lantegia ikus daiteke.

Zutik, ezkerretik eskumara: Iñaki Elortza, Patxi Laskurain, Iñaki Arregi, Mari Nieves Zabalo eta Jose Luis Kortabarria.

Beheko ilaran, ezkerretik hasita: Gorka Hermosa (umea), Emi Sanchez, Kontxi Laskurain eta Manolo Laborda.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Kontxi Laskurain

FARMAZIEN TXANDA

- EGUBAKOITZA, 8**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- ZAPATUA, 9**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- DOMEKA, 10**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 11**
ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87
- MARTITZENA, 12**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 13**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUENA, 14**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRIAOK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
Santa Marina
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
San Pedro
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz pasatzen duzu udaleku irekietan?



ARIANE RODRIGUEZ

Ongi pasatzen dut. Udalekuetara etorri naiz, beste la amona arduratuta egoten delako gugatik. Gustukoen jolaslekura irtetea da, nire ustez. Horretaz gain, maskara bat egin dugu, marraztu...




OIER ELORTZA

Ongi pasatzera etorri naiz udaleku irekietara eta nire asmoa betetzen ari naiz. Batez ere jolastea eta kiroltan jardutea dut gogoko. Jolas asko egiten ditugu eta futboleant eta fronteniseant ere ibiltzen gara.



HODEI RODRIGUEZ

Extremaduratik oporretan etorri naiz Bergarara eta goizak hemen pasatzen ditut jolasean; eta nahiko ongi pasatzen dut. Bingoan jolastea gustatzen zait gehien, baina irabazten dudanean bakarrik.



XABIER ARRIZABALAGA

Aurten dut lehenengo urtea udalekuetan eta gustura nabil. Gehien futboleant egitea gustatzen zait; eta saskibaloian ere ibiltzen naiz, kiroltan pasatzen dut ondoen; gainontzean, bingoa ere gogoko dut.



MIREIA IBABE

Hirugarren urtea dut udalekuetan eta izena eman dut, bestela etxean oporretan aspertu egiten naizelako; eta pozik nabil. Atse denaldian jolastea dut gogoko: gometan eta soka saltoan.



IRATI LAZPIUR

Oso gustuko ditut udalekuak eta ongi pasatzen dut, batez ere jolas orduan harrapaketan jolastean. Bost lagun gaude taldean eta ongi konpontzen gara. Jolasteaz gain, marrazkiak ere egiten ditugu.


TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK UDALETXE ONDOKO ZABORRA Amaia Agirrek esan digu beste edukiontzi bat beharrezkoa dela udaletxe ondoan. "Zaborrez gainera egoten da Artekaleko eta Arruriagako lanak hasi zirenetik. Beira edukiontzia mugituta beste batendako lekua dago". Gainera, auzokideei eskatu nahi die zaborra ateratzeko ordutegia errespetatzeko. //A.

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Loti"



—Gure txikia lotixa da demasa, eta eskerrak orri....

JON IRAEGI

BESTE EKESANA

Batez ere landareen garapenean laguntzen duten osagarriak saltzen ditut. Landareak etxe barnekoen eta kanpokoaren artean bereizten dira, eta beharrezkoak diren muntaiak, lanparak, fluoreszenteak, balastoak eta ateragailuak aurki daitezke. Bestalde, landaketa prozesuan sistema desberdinak erabil daitezke. Hala nola, lurraren bidez, sistema hidroponikoa eta aeroponikoa, kokoren bidez... Sistema bakoitzaren onurak azaldu eta jendeari aholkuak ematea ere bada nire lana. Honetaz guztiaz gain, ongariak, haziak, kili-kariak, neurgailuak eta loreontziak ere ditugu aukeran. Hazietan konparazio baterako, askotarikoak daude"
KAIET LASKURAIN / Klorofila dendako arduraduna 'Zabalik'/05-06-30

BERAIEK DINOE/ Jose Angel Mikeo



Afrika

Afrikatik itzuli berri naiz eta itzuleran G8aren bilera eta Afrikaren aldeko hainbat ekimen martxan aurkitu ditut. Ez dakit ezer lortuko den oraingoan ere, baina nazioarte mailan nolabaiteko kezkarik badagoela adierazten dutela sinistu nahi dut.

Lana dela eta Mozambiken izan naiz hamabost egunez eta itxuraz, arlo batzuetan, herrialdea hobeto ikusi dudana arren, egoera benetan larria dela esan beharra dut: azken bost urtetan bizitza esperantza 43 urtetatik 38 urtera jaitsi baita, ohizkoak diren gaixotasunez gain HIESaren eragin bortitza nabarmentzen ari da eta.

Herrialde batzuetan biztanleriaren % 40a dago kutsaturik. Datorren hamar urteetan horietatik gehienak hil egingo dira. Zein esperantza dauka halako egoeran dagoen kontinenteak?

Hori gutxi balitz, azken hoge urteetan, miseria dagoen jende kopurua 150 milioitik 300 milioira pasa da. Eta gu egoera-

ren erantzule zuzenak gara, gure ekonomiek zeharo baztertuta eta esperantza barik laga baitute kontinente osoa, hazkuntzarako irtenbiderik gabe.

G8a elkartu da Eskozian eta Afrikarako erabakiak hartzekotan omen dabilta. Afrikako ordezkari bat bera ere ez dute gonbidatu arazoa bertatik nola bizi den jakiteko. Munduko ekonomia indartsuenen ordezkari diren horiek zeinen aldeko erabakiak hartuko dituzten ikustekoa izango da. Izan ere, G8a, zortzi horien interesak defendatzeko sortu zen.

Bitartean kontinente oso bat hil zorian da, jendea larri dago eta itxaropenik gabe, eta ez nago ziur kontzertu eta manifestaldiekin egoerari buelta ematerik lortuko dugunik. Eki-menok, gudan kezka eta epe luzerako konpromisorako bidea irekitzeko baliagarri izan daitezkeen nahi nuke, han bizi diren gizon-emakumeak geu bezalakoak baitira, baina hogeita hamazortzi urte baino ez dute bizitzerik espero.

"Azken hoge urteetan, miseria dagoen jende kopurua 150 milioitik 300 milioira pasada"

HAUGIROA!

MINIMOA 10 °C
Domeka, 3

MAXIMOA 32 °C
Domeka, 3

ASTEKO EURIA (l/m²) 2,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 29	25 °C	16 °C	— l/m ²
Eguena, 30	24 °C	12 °C	0,8 l/m ²
Egubakoitza, 1	26 °C	15 °C	— l/m ²
Zapatua, 2	32 °C	10 °C	— l/m ²
Domeka, 3	29 °C	14 °C	0,4 l/m ²
Astelehena, 4	19 °C	16 °C	0,8 l/m ²
Martitzena, 5	22 °C	11 °C	0,9 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirrezaldegi
Oihana Elortza

MAKETAZIOA
Maitena Arana
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
8.680 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a / 251. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Autobus zerbitzu bereziak irailean jarraituko du

AINTZANE IRIZAR

lazko martxoaren 1ean jarri zuten abian arratsaldeetako autobus zerbitzua, Udalak Diputazioarekin eta PESArekin lortutako akordioaren ondorioz. Ordutik hona jarraipen zehatza egin dio Udalak zerbitzu horri, eta emaitzak nahiko positiboak izan dira.

Arratsaldeetan Bergarara joan-etorria egiteko autobus zerbitzu berezia jarri zuten abian iaz, martxoan. Batez ere, eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren neska-mutikoengan pentsatuta bultzatu zuen zerbitzu hori Udalak. Gainerako herritarrek ere erabiltzen dute autobus hori, baina eskolaren ikasturtean bakarrik egoten da, astelehenetik egubakoitzera.

Jarraipen zehatza egiten dio Udalak; eman dizkiguten datuen arabera, egunean, batez beste 65 erabilpen izan ditu aurten. Urtarrilean, batez beste, 55 erabilpen eguneko; otsailean eta martxoan, 65; apirilean, 76 eta maiatzean, 65.

Balorazio positiboa egin dute Udaleko eta Diputazioko arduradunek; irailetik aurrera zerbitzu horrekin jarraitzeko asmoa dute. Azaldu digutenez, gainera, pixkanaka-pixkanaka, geroago eta gehiago dira erabiltzaileak.

BONO-TXARTELAK

Arratsaldeetako autobus zerbitzu honetarako bono-txartelak saldu dituzte; bono horiek erosita, bidaiari bakoitzak 90 zentimo kostatzen da;



lazko martxoan jarri zuten abian arratsaldeetako autobus zerbitzu berezia.

ARTXIBOA

Debagoienez mugikortasunaren arazoari irtenbidea emateko lanean dihardute

bestela, euro bat. Datuei erreparatuta, erabiltzaileen erdiak baino gehiagok ez du bono-txartelak erosi, nahiz eta merkeagoa izan.

GARRAIO PUBLIKOA BULTZATzea

Udalaren eta Diputazioaren helburua zerbitzu honekin da garraio publikoaren erabilera bultzatzea. Noski, arratsaldeetan autobus beharra dutenei zerbitzua eskaintzea ere bai.

Garraio publikoaren gaiarekin lotuta, aipatzekoa da Debagoienez mugikortasunaren arazoari irtenbidea emateko lanean dihardutela Mankomunitateko eta udaletako arduradunek, eta urtarriletik aurrera hainbat ekimen abian jartzeko asmoa erakutsi dute.

MOZIOAK

Homosexualen gaineko mozio bat onartu dute

AINTZANE IRIZAR

PSE-EE alderdiak aurkeztutako "gay, lesbiana, transexual eta bisexualen eskubideen berdintasunaren" aldeko mozioa onartu zuten osoko bilkuran. Besteak beste, Udalak berdintasunaren aldeko neurriak hartzeko eta maiatzaren 17a homofobiaren

aurkako eguna izendatzeko konpromisoa hartzen du.

GERTU GAE-REN MOZIOA

Gertu Gae plataformak, Udalean duen egoeraren gaineko mozioa aurkeztu zuen, 182.2 artikulua aplikatu eta euren karguak hartzeko eskatzeko. Mozio hori ez zuten onartu udalbatzarrak.

LABUR

Esther Garai izendatu dute bake epaile, Urriategik karguari uko egin eta gero

Aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran udalbatzarrak erabaki zuten arabera, Esther Garai izango da bake epailea, eta Amagoia Romero ordezkoa. Hala erabaki dute, Miren Urriategik karguari uko egin eta gero, udaltzainaren ordezkotz lanean diharduelako.

Gaztetxokoaren batzarrean egon ez ziren gurasoendako informazioa, udaletxean

Ekainaren 28an Gaztetxokoaren gainean egin zen batzarreko gutun bat helarazi zitzaion gurasoei. Hantxe, akatsa zegoen: batzarra uztailaren 28an izango zela zioen. Horregatik, batzarrean joan ez ziren gurasoek, udaletxera jo dezakete informazio bila.

Erretiratuen Eguna ospatuko dute etzi, domeka, mezarekin eta bazkariarekin

Jaiaren aurreko domekan urtero egiten duten moduan, Erretiratuen Eguna ospatuko dute etzi, domeka. 11:30ean, meza nagusia izango dute. 14:00etan, bazkaria izango dute Herri Ikastetxearen jolas-tokian; eta bazkalostean, berriz, dantzaldia egongo da.

Itzar

LIBURU DENDA
ESTANKOA

ZORIONAK GUZTIOI!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

Gorosti Taberna

ONDO PASAU JAIXAKI!

943 76 62 96
Zurrategi plaza 1
ANTZUOLA

MARTIN
OKINDEGIA

Langela: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA

Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!

Ainhoa drogeria

ONDO IBILI JAIXETAN!

Kalebarren 13, ANTZUOLA
657 72 39 82



Oporretan, udalekuetan

Aurreko asteko egubakoitzean hasi zituzten udalekuak. Guk astelehenean, bazkal-tzen harrapatu genituen guztiak, frontoian. Trekutz alde-ra egun-pasa joateko asmoa zuten, baina, euria zihardueta eta, frontoian geratu ziren jolasean. Gero, Trekutzerako prestatutako ogitarakoak ere frontoian jan zituzten. Atzo, eguna, San Fermin eguna ospatzekoak ziren./A.I.

IRAKURLIARENTXOKUA

PAUSOA ALDATUTA, ZEIN?

Benjamin Arana jauna, J. Ignacio Madariaga jauna eta M^a Jesus Madariaga anderea; ohore bat izan da zuek bezalako pertsona jakintsuen gutuna jasotzea, KONTUOLA-n. Aitortzen dut ezjakina naizela gai honetan eta zuek asko dakizuela, 17 urtean jakinduria handia lortu baituzue.

Gaur egungo gizarte indibidualista honetan, bakoitzak bere interesari begiratzen diogun gizarte honetan, oraindik zuek bezalako jende solidarioa dagoela ikusteak poz handia eman dit. Antzuolarron segurtasunagatik hain ardura-

tuta zaudetela eta zuen interesak alde batera uzten dituzuela ikustea pozgarria da. Bejondeizuela!

Pozgarria da ere, "Alibiadero atzetik estalita" eskakizun historikoa azkenean egingo dela jakitea. Dakizuen bezala, segurtasun arazoa alibiaderoak konpon-tzen du, plaza zabaltzea Eusko Jaurlaritzaren esijentzia bat besterik ez da, ez dauka segurtasunarekin zerikusirik. Arrarora egin zait zuen idatzian segurtasunarentzat hain garrantzitsua den eta zuen errebindikazio historikoa izan den alibiadero aipatu ere ez egitea.

Asko poztu naiz, azkenean, alibiadero egiteko Herriko

Plazakoak Udalarekin akordio batera iritsi direla jakin dudanean. "Pausoa aldaturik" harrapatu nauena da akordio horretatik justu zuek hirurok kanpo gelditu zaretela ikusteak. Uste dut herri osoa gaudela pausoa aldaturik, beharbada zuen pausoa ez dugu jarraitzen beste guztiok.

Bukatzeo, ea behingoz eta lehenbailehen konpon-tzen dugun errekararen arazo hau, Surpe paretik gainezka irteten diren urak gero Kalebarrenera ere etortzen dira eta.

PATXI OLABARRIA

LABUR

Umeen herri bazkarirako izena emateko epea zabalik dago martitzenera arte

Datorren martitzenean, hilak 12, bukatuko da umeen herri bazkarirako izena emateko epea. Udalekuetan dabilzanek udalekuetako arduradunei eurei eman behar diete izena; gainerakoek, berriz, udaletxera jo beharko dute uztailearen 12a baino lehen. Pausokako gurasoak arduratuko dira, urtero moduan, bazkariak. Bazkari horrekin emango diete jaiari hasiera herriko umeek.

Iñaki Leteren oroimenezko txirrindulari lasterketa etzi, domeka, jokatuko dute

Domekan, LX. Antzuola Saria eta Iñaki Leteren oroimenezko XIII. lasterketa jokatuko dute. 09:30ean hasi eta 12:40 aldera bukatuko da, plazan; 125 kilometroko ibilbidea egin beharko dute txirrindulariek. Besteak beste, Deskargako eta Asentzioko gainak gainditu beharko dituzte.

Udako 'Zinea izarpean' egitarauarekin bukatzeo, bi film besterik ez da geratzen

Gaur, egubakoitza, eskainiko dute *Los chicos del coro* izeneko filma, 22:30ean, frontoi txikian. Datorren asteko egubakoitzean, berriz, herriko jaiak direla eta, ez da filmik egongo. Hilaren 22an eskainiko dute hurrengo, *Amelie*, hain zuzen ere. Horixe izango da egitarau honetako seigarren eta azkeneko filma.

Su txikia sortu zen domeka arratsaldean Sagasti auzoko etxeen atzeko aldean

Domeka arratsaldean su txikia sortu zen Sagasti auzoko etxebizitzaren atzeko aldean. Suhiltzaileak etorri ziren eta berehala itzali zuten sua. Azaldu digutenez, egur hondakinak zeuden hantxe botata eta sua hartu zuten. Ez da hori gertatzen den lehenengo aldia eta auzotarrak kezu azaldu ziren.

Beñardo Kortabarriaren lan batek aipamen berezia jaso du Rikardo Arregi Sarietan

Beñardo Kortabarria kazetari antzuolarrak aipamen berezia jaso du XII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan.


Kortabarriak *Elhuyar* aldizkarian *Erraustegiak sutan* izeneko dossierrean egindako lanagatik jaso du aipamen hori.

Kalebarren janari-denda

Goreti eta Amaiak
jai zoriontsuak
opa dizkizute
herriar guztioi!

kalebarren 11

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA



ALTZARTE

Kalebarren 18. 943 76 62 94

ONDO PASAU
JAIXETAN!



Serge Pletinckx
IGELTSEROTZA

JAI ZORIONTSUAK
HERRITAR DANOI!

Zarugalde 6-3
20500 ARRASATE

Poltsikokoa: 607 957 911
e-posta: Pletinckx@yahoo.es

DESKARGA AUTOAK



Antigua auzoa z/g Antzuola • Tel.: 943 76 62 75

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Garbiñe ile apaindegia

Jai zoriontsuak
Antzuolar guztioi!

Ondarre plaza 4
Tel.: 943 76 61 56

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko uztailaren 8a / 235. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: 55475/95

Ordu aldaketak garraio zerbitzu publikoan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Uztailean ordutegia aldatuko dute Elgeta-Bergara-Arrasate ibilbidea egiten duten autobus zerbitzuetan. Gainera, udan barrena zerbitzua taxi bidez eskainiko du Udalak. Hala ere, bidaiari txarretan eta geltokietan ez da inolako aldaketarik izango.

Ikasturtean zeharreko autobus zerbitzurako Foru Aldundiaren laguntza jaso zuen Udalak; baina orain osorik ordaindu behar du zerbitzu hori.

Azterketa egin eta ikusi dute hainbat orduan zerbitzua kentzea eta beste ordu batzuetan ipintzea dela egokiena, erabiltzaileen eskarien arabera; eta hala egin dute.

Ondorioz, Elgetatik Bergarara bitarteko ibilbidea egiteko garraio zerbitzua 07:40an, 11:45ean eta 13:30ean egongo da udan. 11:45ekoa, gainera, Arrasateraino joango da. Bergaratik

Elgetarako bidea egiteko, berriz, 11:30ean eta 13:15ean egongo da zerbitzua.

Beraz, orain arte Bergaran 14:40an irteten zen Elgetarako autobusa eta Elgetan 14:55ean irten eta Bergarara joaten zena kendu egin dituzte. Haien ordez Bergaratik Elgetara 13:15ean egongo da taxia eta Elgetatik Bergarara, berriz, 13:30ean.

TAXIA

Orain arte autobus bidez eskaintzen zen zerbitzua orain taxi bidez egingo dute. Izan ere, bi eta lau erabiltzaile artean bakarrik dituzte zerbitzuok eta Udalean azterketa egin ondoren ikusi dute merkeagoa dela taxia ipintzea autobusa baino.

Erabiltzaileendako ez da aldaketarik izango bidaiari txartelen prezioan. Bidaiari bakoitzeko euro bat ordaindu beharko dute bidaiariak. Bonua dutenek, berriz, 90 zentimo. Geltokiak ere mantendu egingo dira: Bergaran, anbulatorioan eta 11:45ean irten eta



Orain arte autobusez eskainitako zerbitzua uztailean eta irailean taxi bidez egingo dute.

Arrasatera doan taxia Arrasateko anbulatorioaraino joango da.

Uztailean barrena taxi zerbitzu hori eskaini ostean, abuztuan etena egingo dute, eta irailean berriz ere izango da abian.

Hala ere, oraindik erabaki-

tzeke dago irailetik aurrera nola egingo duten garraio zerbitzua. Hasieran taxi bidez egin arren, baliteke aurrerago aldatzea. Izan ere, ikasleak eskolan hasten direnean erabiltzaile kopuruak gora egingo du garraio zerbitzu horre-

tan; eta horri irtenbideren bat eman beharko dio Udalak. Orain taxia autobusa baino merkeagoa izan arren, ikasleekin taxi gehiago beharko lirateke eta horrek kostua igoko luke.

Bihurguneak konponduta

Bergaratik Elgetarako errepidean Uberako eta Arantzetako bihurguneak konpondutzeko lanetan jardun ostean, ibilgailuak normaltasunez pasa daitezke bertatik. Bihurguneen zabalera handitu egin dute hainbat ibilgailu trabatuta gelditzen baitziren. Orain, trafiko seinalak eta biondak ipintzea eta erremateak egitea baino ez da falta. Udaletik esan digute espero dutela uztailaren 15erako lanak amaituta egotea; eta beranduenez hilaren 22rako eginda egongo direla./I.A.


LABUR

Kirola dinamizatzeko taldearen batzarra astelehen arratsaldean kultura etxean

Kirola dinamizatzeko egitura egonkorra sortzeko asmoz hainbat bilera egin dituzte herrian eta beste batzar baterako dei egin dute orain. Bilera uztailaren 11n, astelehenean, izango da, 19:30ean, kultura etxean. Herriko kirolari eta kirolzale guztiak daude deituta batzarrerara. Bertan zehaztu nahi dute urteko azken lau hilabeteetarako kirol programa: jarduerak, antolaketa eta funtzionamendua, besteak beste.

Udaletxea goizez bakarrik egongo da zabalik irailean bitartean

Udako ordutegiarekin dihardute lanean udaletxean. Irailean bitartean 08:00etatik 14:30era arte egongo dira langileak udaletxean. Beraz, udaletxean gestioak egin nahi dituztenek kontuan hartu behar dute arratsalde itxita egongo dela. Bestalde, jakinarazi digute abuztuaren 6tik aurrera udaletxera joaten direnek txirrina jo beharko dutela sartu ahal izateko. Izan ere, langile bakarra egongo da bertan eskari guztiei erantzuteko.



JAIK

Azoka Nagusiaren ostean pozik herritarren parte-hartzearekin

I.A.

Azoka Nagusiko jaiak izan ziren joan zen asteburuan, eta jai batzordeak antolatutako ekitaldiez gozatzeko aukera izan zuten elgetarrek zein kanpotik bertara joandakoek. Antolatzaileak pozik azaldu dira, emanaldiak ongi atera direlako.

Jaiak amaituta antolatutako gauza gehienak espero bezala joan direnez, pozik daudela esan digu Udaleko Kultura teknikariak. Hala ere, badute pena bat, jaiak ezin izan zituztelako uste bezain ongi amaitu. "Jaiak amaitzeko antzerki saioa genuen iragarrita, baina euria zela eta bertan behera gelditu zen emanaldia. Eszenatokia plazan gertatzeko bost ordu behar izan zituzten eta ezinezkoa zen azken unean dena beste leku batera aldatzea", esan digu Enrike Gorrotxategik.

Gainontzean dena ongi joan da, "nahiz eta azken urteetan bezala gauean plazako dantzaldietan jende gutxi ibili den".

Jaiak ongi joan arren izan da ezbehar txikirik ere. Zezenetan zein herri jolasetan jausi eta zauriak izan dituzte bi herritarrek.

ZAPATU EGUERDIKO GIROA

Zerbait azpimarratzekotan zapatu eguerdian plaza inguruan egon zen giroa aipatu digu Enrikek. "Asto karrerarekin hasi eta arratsaldeko jokoetara bitartean jende asko elkartu zen plaza bueltan. 400 lagunendako gertatutako pae-



Zapatuko herri jokoetan jende askok hartu zuen parte.

lla bukatu egin zen, nahiz eta batzuek errepikatu ere egin zuten; eta jokoetan herritar askok hartu zuen parte".

Domekako azokak ere jende asko ekarri zuen Elgetara. "Aurtengoan, urteurrena zenez, aurrez iragarri da azoka eta horrek jendea gerturatzea eragin du".

GAZTETXEKOAK ERE POZIK

Jaietan gaztetxean ere egon da ekitaldirik. Kontzertuetara jende

asko joan da, baita trikipoteora ere. Gaztetxeakoak pozik azaldu dira jendearen erantzunarekin: "Batez ere jende artean sortu den giro polita azpimarratuko genuke", esan digute.

Oraindik jai batzordeak ez du aurtengo jaien gaineko gorabeherak aztertzeko bilerarik egin, baina gauzak nola joan diren gainbegiratu dute zer errepika daitekeen eta berriz zer ez egin erabakitzeko.

KULTURA

Antzerkia gaur gauean Espaloian

I.A.

Gaur, barikua, uztailak 8, *Nora hoa, neska?* antzezlan eskainiko du Txirena antzerki taldeak Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean. Lierni Fresnedok zuzendutako obra horretan, Edurne Agirrezabalak eta Begoña Amonarrirek jardungo dute aktore lanetan.

Umorezko komedia izango da, gaur egungo emakume askoren egoera islatzen duena.

Hogei urtez ezkondata egon ondoren senarrarengandik banandu den Peparen bizitza kontatzen du. Pepak ezin du sinetsi bere bizitzarekin zer egin duen: lana bertan behera utzi zuen, senarrari atsegin ematearren,

eta, orain, atzera begiratu eta ohartzen da antzezle-lanean jarraitu izan balu bere bizitza zein desberdina izango zatekeen. Baina, etsipenak hartuta dagoe la dirudien unean, Pepa alai berpiztuko da, galdutako denbora berreskuratzeko prest.

Udalak antolatu eta Kutxak lagundutako emanaldia izango da gaurkoa.

ZINEMA

Antzerkia ez ezik zinema saioak ere izango dira Espaloian. Ohiko egun eta orduan zineklubeko emanaldiak egongo dira uztailean barrena; eguaztenetan 21:30ean. Uztailaren 14an, Espainiako gerrarekin lotutako film bat emango dute: *Fiesta*. Pierre Boutronen zuzendutako drama frantsesa da.



Egungo emakume askoren egoera islatuko du gaurko antzerkiak.

KIROLA

Berasaluze eta Idoate lau t'erdiko txapelaldun

I.A.

Ibilbide luzearen ostean, bariku gauean Udal Pilotalekuan jokaturako finalekin amaitu zen aurtengo ETB-Kantxa lau t'erdiko pilota txapelketa. 23 urtez azpikoe-tan Berasaluze berriztarra izan zen txapelaldun; kadeteetan, berriz, Idoate burlatarra.

Datorren astean berritze lanetarako prestatzen hasiko dira Udal Pilotalekua. Bitartean pilotalekua baino pilotariak izan dira albiste. Izan ere, barikuan, frontoia beteta zela, ETB-Kantxa txapelketako finalak jokatu ziren.

Kadete mailako finalean Mikel Idoate burlatarra izan zen txapelaldun Aitor Mendizabal antzuolarrari 22-16 irabazita. Bi ezkertien arteko borrokan nafarra gehiago izan zen fisikoki, eta Mendizabalendako ez ziren nahi-

koak izan Antzuolako animatzaileen oihuak txapelketa bikaina egin duen Idoateri aurre egiteko.

Asier Berasaluze berriztarrek 22 eta 7 irabazi zuen 23 urtez azpikoen finala Lizarrako Pablo Urri-zelkiren aurka. Berasaluzeren sakeak mina egin zion Urri-zelkiri; eta finala oso azkar amaitu zen inolako emoziorik gabe.

ANTOLATZAILEAK GUSTURA

Finalean pilotalekua beteta ikusita eta txapelketak izan duen maila onari begiratuta pozik daude antolatzaileak.

Pilotalekua konpontzen hasiko direnez, datorren urtean txapelketa non egingo duten galdetu diogu Juan Luis Uberari. Honen esanetan, "Elgetan bertan izango da. Udaletxetik agindu digute martxorako lanak amaituta egongo direla".



Mendizabal antzuolarrak ez zuen Idoate burlatarra gainditu kadeteen mailan.

LABUR

Abuztuaren 23ra arteko epea uraren zerga ordaintzeko

Gipuzkoako Ur Partzuergoak elgetarrei jakinarazi nahi die ekainaren 24an hasi zela eta abuztuaren 23ra bitarteko epea izango dutela urari, arazketari, saneamendu planari eta zaborrari dagozkion ordainagiriak ordaintzeko. Urteko bigarren hiruhilabeteko zerga ordaindu beharko dute epe horretan. Bestalde, zehaztu dute ordainagiriaren gaineko erreklamazioak aurkezteko azken eguna uztailaren 24a izango dela. Epea pasatu ostean, borondatez ordainketa egin ez duten zergapekoei ur hornidura eten egingo dietela ohartarazi dute partzuer-gokoek. Bestalde, gogorarazi dute ordainketa aurrezki kutxa baten bitartez egin behar dela.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a / 14. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Zuzenbidearen europar bideak aztertu dituzte hainbat adituk

OIHANA ELORTZA

Mundu osotik etorritako 170 soziologo eta legelarik hartu dute parte Oñatin egindako Zuzenbidearen europar bideak kongresuan. Gai horri buruz munduan egin den lehen kongresua izan da. Joxe Ramon Bengoetxea, Zientzia zuzendari berria, ere egon da.

Eguaztenean hasi eta gaur, egubakoitza, bukatu dute Sancti Spiritus Unibertsitatean Zuzenbidearen europar bideak kongresua. Joseba Azkarraga Justizia sailburua, Fernando Tapia Gipuzkoako Aldundiko Gizarte eta Erkunde Harremanetarako diputatua, Andoni Gartzia Oñatiko alkatea, Volkmar Gessner azken bi urteotan Unibertsitateko Zientzia zuzendaria izan dena eta Joxe Ramon Bengoetxea zuzendari berriak eman zioten hasiera kongresuari.

MUNDUKO LEHEN KONGRESUA

Mundu osotik etorritako 170 soziologok eta legelarik hartu dute parte maila handiko kongresu horretan. Gai horri buruz munduan



Bengoetxea, Gessner, Azkarraga, Tapia eta Gartzia kongresuaren inaugurazio ekitaldian.

egin duten lehen kongresua izan da. Gizartearen eta zuzenbidearen artekoak nola konpondu aztertu dute, besteak beste.

GESSNER ETA BENGOETXEA

Azken bi urteotan Volkmar Gessner alemaniarra izan da Sancti Spiritus Unibertsitateko Zientzia

zuzendaria. Datorren ikasturte-tik aurrera, Oihartzunen bizi den Joxe Ramon Bengoetxea irundarra izango da zuzendaria.

LABUR

Musika eskolak iragarki bat grabatuko du urrian

Oñatiko Musika Eskolak iragarki bat grabatuko du datorren urrian. Euskadiko musika eskolek egingo dute iragarkia egiten duten lana ezagutarazteko, eta Oñatiko Musika Eskolak iragarki horretan hartuko du parte. ETBn ikusiko da iragarkia.

Guztira 53 musika eskola eta 23.000 ikasle daude Euskadiko Musika Eskolen elkartean. Nahi duten ikasle guztiek har dezakete parte iragarki horretan, adinaz ez du garrantzirik. Oñatiko Musika Eskolako ikasleek ere parte hartu ahal dute iragarki horretan, nahi izanez gero.

Hasiera batean, datorren astean, uztailak 13, grabatu behar zuten iragarkia, Gernikan. Ikasleak, ordea, oporretan daude eta elkartzea zaila izango dela jakinda, atzeratu egin dute iragarkiaren grabazio eguna. Datorren ikasturte hasieran grabatuko dute iragarkia, urrian zurronez. Grabazioan parte hartu nahi duten ikasleek, musika eskolan bertan jasoko dituzte argibideak irailan.

TOURRA 2005

Aurten ere hiru autobus joango dira Tourra Pirinioetan ikustera

O.E.

Garmendia, Odriozola eta Markel Irizar lagunartek antolatuta aurten ere Tourrerako irteera. Pirinioetako bi etapak ikusiko dituzte. 200 lagun inguru joango dira hiru autobus eta autoetan.

Aurten ere Tourrerako irteera antolatuta dute Garmendia, Odriozola eta Markel Irizar lagunartek. Dagoeneko 180 lagunek eman dute izena Tourrera joateko eta autobusak ia beteta daude. Hiru

autobusetan joango dira eta horiez gain, furgoneta eta kamioi txiki bat ere joango dira jatekoa, edatekoa eta beste hainbat traste eramateko. Autoetan ere joango dira batzuk.

PIRINIOETAKO ETAPAK

Pirinioetako etapak ikusiko dituzte. Datorren asteburuan joango da Tourra Pirinioetara eta hantxe izango dira Oñatiko hiru autobusetan joango direnak ere.

Datorren egubakoitzean, uztailak 15, abiatuko dira Frantziara. 15:30ean irtengo dira Ola-

ako ahateen urmaeletik. Zapatuan, Andorratik gertu ikusiko dute etapa eta domekakoa ikustera, Val-Louron mendatera joango dira. Domeka iluntzean abiatuko dira bueltan Oñatirantz. Lo egiteko kanpin dendak eramango dituzte aurten ere. Antolatzaileek ikusi dituzte dagoeneko etapa horien inguruak, eta begiz jota dituzte horrenbeste lagun sartzeko tokia egongo diren lekuak eta bazterrak.

Antolatzaileek guztiendako kamiseta laranja eskatu dizkiote Euskalteli. Ea heltzen diren.



Betikoz gain, jende berriak ere eman du izena Tourrera joateko.

BARCELO BIDAIK

Hegaldiko lesioei aurre egiteko ariketak

Bidaia luzeak turista klasearen sindromea eragin dezakete, odolaren zirkulaziorako oso txarra da. Hala, ariketa batzuek arriskua txikitzen dute.



Orkatilarekin biribilak egitea.

Orkatila biak biratu, bata erlojuaren orratzen zentzu berean eta bestea kontrako zentzuan. Oinetako behatzak lurrean dituzula errepikatu hamar aldiz, biribilen zentzuá aldatuz.



Oinen flexioak.

Oinak lurrean dituzula, igo oinaren punta gora. Gero, ostera, oinak lurrean dituzula orpoa igoko dugu, oinaren punta lurrean dela. Errepikatu 15 aldiz ariketa hanka bakoitzarekin.



Flexioak aurrerantz.

Oinak lurrean eta urdaila sartuta. Gorputza aurrerantz bota eta eskuak behera jaitsi eskuekin orkatila ukitu arte. Egon zaitez 15 segundo. Atzera bueltatu poliki-poliki.



Belauna gora igotzea.

Jaso ezazu hanka bat altuera erdira belauna flexionatua, muskulua gogor edukiz. Jaitsi hanka muskulua erlaxatzen duzun bitartean eta beste hankarekin gauza bera egin. Errepikatu 20 aldiz hanka bakoitzarekin.



Sorbalden errotazioa.

Bizkarra jarlekuan zuzen jarri mugimendu zirkularrak eginez, mugitu sorbaldak poliki. Ariketa hau aurrera, atzera, gora eta behera egin behar da, hamar aldiz bakoitzarekin.



Besoen flexioa.

Besoak 90 gradutan jarri: ukondoak behera, eskuak aurrera eta zabalik. Eraman eskuak bularrera eta jaitsi poliki. Gomendatzen da eskua bularrean 30 segundo edukitzea.



Buruaren atzetik luzatzea.

Jaso itzazu eskuak luze buruaren ostetik. Esku batekin hartu beste eskuko eskumuturra eta luzatu poliki-poliki 15 segundo. Beste eskuarekin gauza bera egin, beso batek ez dezan besteak baino gehiago sufritu.




Lepoko mugimendua.

Sorbaldak eta lepoa erlaxatuta dituzula, gerturatu belarria sorbaldara, gero biratu burua aurrera eta atzera eta alde batera eta bestera. Ariketa hau poliki egitea gomendatzen da. Alde bakoitzera bost aldiz.



Sorbaldak luzatzea.

Eskumako eskua ezkerreko besaurrearen gainean. Gero bultzatu ezkerreko eskuarekin eskumako ukondoa sorbaldarantz, eraman besoa leporantz poliki-poliki. Egon zaitez 15 segundoz eta errepikatu beste besoarekin.



Belauna bularrera.

Hanka bat gora igo eta besarkatu eskuekin belauna, gero eraman belauna bularrerantz. Egon geldi 15 segundo eta gero jaitsi belauna poliki-poliki. Ariketa hanka bakoitzarekin hamar aldiz egin.

UDA 2005
BIDAIA IKUSGARRIAK

Beste arraza batzuk, beste zeru batzuk, bizitza ulertzeko beste era bat. Eguzkiak ere distira berezia duela ematen du. Beste mundu bat ekarri dut nire oroitzapenean.

Zer ekarri behar duzu zuk handik?



BERGARA - GIPUZKOA
Ibargarai 8 - Tel.: 943 76 08 43

902 200 400 | barceloviajes.com

NATIONAL GEOGRAPHIC CHANNEL
www.concursodefotografia2005.com
Parte hartul

Barceló Viajes Bidaiak

ZURE AUTOAREN PIEZAK PUNTU-PUNTUAN



Giauto

Olabarrena z/g • 943 76 33 44/46 • Bergara
San Andres 10D • 943 77 30 10 • Arrasate
www.giauto.es



Berraondokua • 943 76 82 02 • Elgeta

Murillo Garajea

San Lorenzo z/g • 943 76 13 84 • Bergara



Amillaga 32 • 943 76 19 11 • Bergara

DESA CRISTAL

Santalaitz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara
Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia • 943 69 16 16 • Irura



Amillaga 22 • 943 76 17 35 • Erakusketa: 943 76 51 35 • Bergara

Berria Garajea

Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

ION AUTOAK

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara



Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a / 252. zenbakiaren gehigarri berezia



JAIKAK05

JATORRIZKO ARGAZKIA: GOIENKARIA

**Doitasunezko
trokelak**
TROKELAY, S.A.

Zerbitzuak
ELAY, S.L.

ELAY Taldea

Ebaketa zehatza
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.

**Gainmoldaketak
eta tratamenduak**
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.

ATREBENTZIAEZPADA/ Jaietan koadrilako blusa janzten duzu?



MIKEL ASENSIO
11 urte

Bai, Kalebarrengo eta Ondarreko jaietan ere bai. Gorria da, eta kareta dauka. Koadrilako guztiok janzten ditugu blusak, orain dela bi urtetik.



ANE ALBERDI
12 urte

Bai, hirugarren mailan hasi ginen; gurea ez da blusa, kamiseta da. Aurrean erle bat dauka eta atzean jartzen du *Erle marxosoak*.



GAROA MANZIDOR
10 urte

Bai; urdina da eta animalien marrazkiak dauzka. Ikasgelako guztiok janzten dugu blusa bera, herriko jaietan eta Kalebarrengo eta Ondarrekoetan.



MAIALEN BELASTEGI
10 urte

Bai; ni Garoan koadrilakoa naiz eta blusa bera janzten dugu. Asko gustatzen zaigu blusarekin irte-tea; ikasgelako guztiok blusa berarekin irteten gara.



IKER MOYANO
10 urte

Bai, blusa urdin bat, animalien irudiekin. Tela erosi, eta gurasoekin egin zizkiguten blusak. Kalebarrengo jaietan eta Ondarrekoetan ere janzten dugu.

ALKATEAREN AGURRA/ Jose Anjel Zabalo



Urtebete pasa ondoren heldu dira berriro ere jaiak. Eguneroko kezka eta ardurak alde batera utzi eta goza ditzagun bada alaitasunez; horixe da nire eta Udalaren nahia.

Nire eskerrik beroenak jai batzordeari eta ekintzak antolatzen lagundu duzuen herritar guztioi, zuei esker izango baitute jaietz gozatzeko aukera, bai antzularrek eta baita kanpotik hurbilduko diren guztiok ere.

Jai zoriontsuak opa dizkizuet antzular guztioi, kanpoan bizi zaretenoi eta arrazoiz bat edo beste dela medio gure artean egongo ez zareten guztioi.

Bereziki zoriondu eta animatu nahi zaituztet azken urte hauetan kanpotik gure herrira bizitzera etorri zaretenok. Jaietan parte hartzeko eta herri honetako ekimenetan poliki-poliki murgiltzen joateko gonbita egiten dizuet.

FOTOZAHARRA

Jaietan La Vergaresako autobus aurrean

Juanito Lizundiak lagatako argazkia 1955ekoa da. La Vergaresako autobusean etortzen zen jendea jaietara, eta baten aurrean daude; Jon Lizundia, Ani Aristi, Jose Luis Errasti eta Ignacio Larrea, Pedro Zubikarai, Jabier Arregi, Santi Aristi, Angel Murgiondo eta Jose Mari Zubikarai.



leapaindegia
Edertze aretoa

Laister
laser bidezko depilazioa.

Informa zaitez!

Ondo pasau jaixak!


Errekalde 2 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

ANTZUOLAKO

EAJ PNV

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU ANTZUOLAR GUZTIOI.

ONDO PASAU PIEDADE JAIXAK!!!



Zabalo Iturgintza S.L.

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentek bideratzen ditugu

Ondo ibili jaietan!

EGITARAUA

EGITARAUA

Domeka, 10

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA .
IX. Antzuola saria. Iñaki Lete XIII. oroigarria.
11:30 MEZA.
14:00 ERRETIRATUENDAKO BAZKARIA
herriko ikastetxean. Ondoren, dantzaldia.

Eguena, 14

10:30-13:00 UMEENDAKO JOLASAK herriko
plazan, udaleku irekietako begiraleekin.
13:30 UMEEN HERRI BAZKARIA, plazan.
15:00-17:00 UMEENDAKO JOKOAK herriko
plazan, begiraleekin.
18:00 Jaien hasiera iragartzeko
TXUPINAZOA eta KANPAIAK.
Ondoren, TXISTULARIEN KALEJIRA eta
BURUHANDIAK.
19:00 TXOSNAK IREKITZEA.
19:30 SALBEA parrokian. Antzuolako
abesbatzak Alfontso Ugarteren salbea
kantatuko du.
20:15 Oinarineko umeekin, IKURRIN DANTZA.
Ondoren, Antzuolako bandera eta Ikurrina
jasotzea.
Gero, UDALBATZAREN AURRESKUA,
Oinarinek lagunduta.
21:00-22:00 IRAILERAKO 6 taldearekin
DANTZALDIA.
00:00 SUZKO ZEZENA, herriko plazan.
23:30-02:30 IRAILERAKO 6 taldea plazan.

Egubakoitza, 15


09:55 TXUPINAZOA.
10:00 Txistulari taldearekin, GOIZ-ERESIA.
11:00-13:30 UMEENDAKO JOLASPARKEA:
Goming-a, puzgarriak, buru-hausgarriak eta
bideo jokoak herriko plazan.
11:30 MEZA nagusia.
12:30 BERTSO SAIOA Zurrategin,
Andoni EGAÑA eta Angel Mari
PEÑAGARIKANO bertsolariekin.
Erretiratuek salda beroa eskainiko dute, nahi
duen guztiarendako.
16:30-19:00 UMEEN JOLASPARKEA herriko
plazan.
19:30-20:30 ZEZEN TXIKIAK ETA PONEYAK
herriko plazan.
23:00-00:00 GUADALUPANO MARIATXIAK
herriko plazan.
00:00 DJ BULL txosna-gunean.
00:20-01:20 GUADALUPANO MARIATXIAK
herriko plazan.

Zapatua, 16

09:55 TXUPINAZOA.
10:00 Txistulari taldearekin GOIZ-ERESIA.
11:30 BERGARAKO UDAL MUSIKA
BANDAREN KALEJIRA.
11:30-13:30 ESKULAN TAILERRAK herriko
plazan, Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi
taldearen eskutik.



UMEENDAKO JOLASAK IA EGUNERO.



BERRAONDO ETA ELKORO DOMEKAN.

12:30 BERGARAKO UDAL MUSIKA
BANDAREN KONTZERTUA Zurrategin.
18:00 Mairuaren ALARDEA.
19:00 Oinarin taldearen DANTZA SAIOA.
19:30 HERRI KIROLAK Zurrategin.
20:00 PRESOEN ALDEKO EKITALDIA
Zurrategin.
21:00-22:00 JOSELU ANAIAK taldearekin,
DANTZALDIA.
21:30 HERRI AFARIA, txosna batzordeak
antolatuta Zurrategin.
23:00 KONTZERTUA, txosna-gunean.
00:00 SUZKO ZEZENA, herriko plazan.
23:00-02:00 JOSELU ANAIAK taldearekin,
DANTZALDIA.

Domeka, 18

12:15-13:00 HARRI JASOTZAILEAK: Aimar
Irigoien eta Miren Urkiolaren erakustaldia.
12:30 GASTRONOMIA DASTATZEA herriko
plazan. OLALDE elkarteko eskutik.
13:00 Herriko ekimena bultzatzeko lanean
diharduten ELKARTEEI OMENALDIA, plazan.
17:00 PILOTA PARTIDUAK, Udal
Pilotalekuan: Berraondo-Arrouo II.a/ Chafee-
Auxkin; Eugi-Eulate/ Gonzalez-Elkoro.
19:00-20:15 KALE ANTZERKIA: *Katxi-Batxe
de Cuccina* antzezlan.
20:30-22:00 EGAN taldearekin
DANTZALDIA.
23:00 BARRA LIBREA, txosnetan
23:00-01:00 EGANEKIN DANTZALDIA.

SUKALDEKO HALTZARIAK
Harizki

MUEBLES
IGEA

Zurrategi plaza 4 behea • Tel./Faxa: 943 78 71 80

- Sukalderako eta bainurako altzariak
- Altzari rustikoetan espazializatuak

Jai zorientsuak guztioi!

Jai zorientsuak igaro ditzazuela antzuolar guztiok eta bertaratzen zaretenok!



Gabilondo-Arregi

harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDA

'Antzuolako doinuak', Bergarako musikariek jota

Alfredo Gonzalez Chirlaquek propio konposatu du euskal martxa, eta jaietan estreinatuko du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergarako Udal Musika Bandaren doinuak entzungo dira jaietako zapatuan Antzuolan. Goiz partean 11:30ean kalejira egingo dute; ondoren kontzertua Zurrategin, 12:30ean.

Ezagunak dira Bergarako Udal Musika Bandaren doinuak Antzuolan. Izan ere, urte luzetan eskaini dute bergarrek kontzertua Antzuolako jaietan.

Aurten, bandaren kontzertuak izango du berezitasunik. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Antzuolako doinuak* euskal martxa estreinatuko dute Zurrategin zapatu eguerdian. "Urte askoan joan gara Antzuolara bandakoak eta sarritan pentsatu dugu detaile modura antzuolarrrendako zerbait egitea; azkenean, aurtengorako prestatu dut konposizio berezia", esan digu bandako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek.

Bandakoek ez ezik bergarrek ere beti izan dute Antzuolako jaietarako joera. "Ni txikitik, bandan jo aurretik, familiakoekin joaten nintzen alardea ikustera abuztuan. Gaur egun ere gazteak joaten dira jaietara, ezinbesteko hitzordua dela esan genezake. Gainera, ezagun asko daukagu herrian. Lotura berezia dago Bergara eta Antzuola artean, eta horrek kontzertua ere berezia egiten du".

"Mairuaren alardeko bi doinurekin konposatu dut martxa berria"

"Kontzertua aire librean izanik bariatua eta alai egingo dugu"

ALARDEKO DOINUAK

Martxa hori nolakoa den galdetuta honako azalpenak eman dizkigu Alfredo: "Mairuaren alardeko bi doinu hartu ditut: desfilekoa eta plazan abesten duten zortzikoa. Bi pieza horiekin jolastuz osatu dut konposizioa".

Kontzertua *Antzuolako doinuak* piezarekin hasiko bada ere, beste lau lan ere eskainiko dituzte: Balkanetako doinuak, umeendakoak, jai girokoak zein zarzuela entzuteko aukera izango da. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren esanetan, "kontzertua aire librean izanik ezin da ukitu seriokoa izan; bariatua eta era berean alai egingo saiatuko gara".

ANTZUOLARRAK BANDAN

Bergararrak ez ezik, bandan badira antzuolarrak ere, eta jaietako kontzertu horretan ere jardungo dute, dudarik gabe: Patxi Olabarrriak perkusioa joko du; Alaitz Zabalok zeharkako txirula; Hodei Letek klarinetea eta Imanol Lizarralde trontpetea eta fliskornoa.



Lau antzuolarrak dihardute gaur egun Bergarako Udal Musika Bandan.

Egitaraua

<i>Antzuolako doinuak</i> Euskal martxa A. Gz. Chirlaque (estrenaldia)
<i>Balkan dreams</i> Fantasia K. Shcoonbeek
<i>La Gran Via</i> Zartzuelako aukeraketa Chueca-Valverde
<i>The lion king</i> Soinu banda E. John-H. Zimmer
<i>Copacabana</i> B. Manilow



Antzuolako Udalak jai zoriontsuak opa dizkizue!

Bereziki zapatu arratsaldeko seieta egingo den Mairuaren alardera gonbidatu nahi zaituztegu. Zatozte!



Antzuolako udala
www.antzuola.com

Jose Luis
Zabalo



IGELTSEROTZA

Ondo pasau
jaixak!

ZAHAR BERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak **Eta orain... GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Kalegoi 9 -1a. • ANTZUOLA • Tel. Faxe: 943 76 60 89

OMENALDIA

Herri ekimena bultzatzen duten elkarteak sarituko dituzte

Omenaldia egin bitartean Olalde elkarteak marmitakoa eta txistorra banatuko dituzte plazan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak antolatzen dituen ekintza gehienetan herriko elkarteak izaten ditu laguntzaile. Elkarlan hori eskertzeko omenaldia egingo die elkarte horiei domekan plazan.

Urtetan herrian antolatutako hainbat ekimenetan egin duten lana eskertzeko, herriko talde eta elkarteak omenduko dituzte domeka eguerdian.

Kulturan, kirolean, elkartasunean eta halako gaitan dihardutenei egingo diete omenaldia. Talde bakoitzeko ordezkariak plaka bana jasoko dute Jose Angel Zabalo alkatearen eskutik.

Guztira, 19 talde eta elkarte jasoko dute saria: Oinarin Dantza Taldea; Eperra Elkartea; Txistulari Taldea; Idolaz Euskara Elkartea; Abesbatza; Maiuruaren Alardea Kultura Elkartea; Erretiratuen Elkartea; Antzuolako Gazte Asanblada; Olalde Pilota Elkartea; Arrola Mendizale Elkartea; Aiastui Peña; Antzuolako Kirol Elkartea; Pausoka Gurasoen Elkartea; Odol Emaleen Elkartea; Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldea; Lokatza Ziklismo Eskola; Euskal Herrian Euskaraz; Anelkar Elkartasun taldea eta Caritas-ek.

KIROLARI AMATEURRAK

Elkarteak omentzea izango da domekako ekitaldiaren helburua, baina hainbat norbanakok ere jasoko du

aipamenik. Aurten kirol arloan lorpen bereziak izan dituzten hainbat kirolari oroigarriak banatuko dizkiete. Futboleko, gimnasia erritmikoan, triatloian, ehizan, txirrindularitzan eta pilotan nabarmendu direnei, hain zuzen ere. Sariok Haritz Berraondo pilotari ezagunak banatuko ditu.

GASTRONOMIA DASTATZEA

Sariak banatu bitartean Olalde elkarteak gertatutako marmitakoa jateko aukera izango da plazan. Guztira, 40 kilo marmitako banatuko dituzte; baita hamar kilo txistorra ere. Guztia ardoz eta sagardoz bustita. Dena doan izan arren, kaxa bat ipiniko dute jendeak borondatez dirua eman dezan; diru hori elkartasun ekintza baterako izango da.



Erretiratuen Elkarteak zuzendaritzarako kide berriak aukeratu ditu aurten.

AINZANE IRIZAR



Aurten sortu da Euskal Herrian Euskaraz taldea, eta, besteak beste, sinadura bilketak egin ditu.

GOENKARIA



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

ERREKA®

Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoen fabrikazioa

Ibarreta z/g 20577
Antzuola

Tel. + 34 943 78 60 09

Faxa + 34 943 78 70 34

<http://www.matz-erreka.com>

TXOSNAK

EHE eta Presoen Lagunak taldeek jarriko dituzte txosnak

Antzuolako Gazte Asanbladak ez du txosnarik jarriko, baina txosna batzordeko kide da

AINTZANE IRIZAR

Jendea falta zaiela eta, Antzuolako Gazte Asanbladak ez dute txosnarik jarriko aurten; hala ere, txosna batzordean jardun dute lanean, ekitaldiak antolatzen.

Hasiera baten hiru txosna jarriko zituztela iragarri ziguten arren, azkenean, gazte asanbladakoek, jendea falta zaiela eta atzera egin dutenez, bi txosna izango ditugu aurten ere; talde bat, baina, berria dugu: Euskal Herrian Euskaraz, hain zuzen ere.

Dena dela, hiru taldeek batera antolatu dituzte txosna-guneko ekitaldi guztiak.

Iaz txosna batzordeak egindako aldaketek arrakasta izan zuten, berdin jarraituko dute: Zurrategin jarriko dituzte txosnak, presoen omenaldia zapatuan izango da Herriko Plazan eta domekako herri bazkariaren orde, herri afaria antolatu dute. Mox



Danbaka lehiaketako talde irabazle Sharon Stoner-ek emango du kontzertua zapatu gauean, txosnetan.

eta Larrea tabernetan jarriko dituzte txartelak salgai; aurten, baina, koadrilen artean ere banatuko dituzte txartelak. Eta ez gazte koadrilen artean

bakarririk; izan ere, antolatzailerik argi laga nahi dute afaria ez dela gazteendako bakarrik; adin guztietako jendea animatu nahi dute herri afarira joateko.

ROCK KONZERTUA

Ekitaldi aipagarrienen artean, zapatu gaueko kontzertua dugu; Sharon Stoner talde oñatiarra zuzenean entzuteko aukera

izango dugu. Goienaren Danbaka lehiaketa irabazi zuten. Oñatiarrekin batera, beste talde jamaikar bat izango dugu. Girorik ez da faltako beraz.

Txosna batzordearen egitaraua

EGUENA, 14

19:00

Txosnen irekiera.

EGUBAKOITZA, 15

00:00

DJ Bull.

ZAPATUA, 16

19:30

Herrien arteko herri kirolak. Aiherra, Etxarri-Aranatz eta Antzuola.

20:00

Presoen aldeko ekitaldia; senideei omenaldia eta ondoren, sagardo eta txorizo dastaketa, trikitalariekin.

21:30

Herri afaria.

23:00

Kontzertua: Sharon Stoner eta Jamaikako talde bat.

DOMEKA, 17

23:00

Edatekoa doan. Zabalik dauden botilak gastatzeko bakarrik.



Ana Etxeberria

Kirol masajista
Osteopata
Akupuntura
Esku terapeuta
Linfodrenagista
Kiropraktikoa

Errekalde 6 behea Tel.: 943 76 60 13 ANTZUOLA

Jai zoriontsuak guztioi!

TXOMIN GARAJEA



Mekanika orokorra

Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

ZORIONAK
GUZTIOI!

ALARDEA

Iparragirreraren bertsoak herritar guztion ahotan

Panel handi baten jarriko dituzte bost bertsoak, abesbatzarekin batera abes ditzagun

Zapatua,
uztailak 16

Herriko kaleetan,
18:00etan

AINTZANE IRIZAR

Berritasun batekin datorkigu aurten alardea; Iparragirreraren bertsoak abesbatzako kideek bakarrik abestu beharrean, herritar guztiek izango dute horretarako aukera.

Alardean herritarren parte-hartzea bultzatzea; horixe da Mairuaren Alardearen Kultur Elkartearen helburuetako bat. Hori lortzeko bidean, berritasun bat izango du aurten alardeak; Iparragirreraren bost bertsoak panel handi baten jarriko dituzte, herritarrek irakurri eta abesteko. Eskumako taulan jarri ditugu bertsoak, ikasiz joateko.

Danborraren 24 bat lagun irtengo dira. Eskopetekin, berriz, 30 bat izango dira. Bi kanoi ateratzen dira, eta bakoitzarekin, lau lagun. Mairuarekin, berriz, lau gastadore joaten dira.

Kapitainaren paperean, azkeneko urteotan bezala, Joseba Iparragirre



Abesbatzako kideek abestu izan dituzte alardean urtero Iparragirrek jarritako bertsoak.

ikusiko dugu, eta eskopetatun buru, Jose Angel Arbulu, iaz bezala. Mairuaren paperean, berriz, nola ez, *Mañua*. Eta ezin ditugu txistulariak ahaztu. Guztira, 90 bat herritarrek parte hartzen dute.

Hiru asto irteten dira alardean, bat mairuarekin eta beste biak kanoiei tiraka. Aurten Lizarriturri eta Aritzagabasalde baserrietatik ekarriko dituzte. Kapitainaren zaldia, berriz, Elosutik.

ESKOPETA BERRIAK
Datorren urtean beste berritasun bat izango du alardeak: eskopeta berriak izango dituzte, jaurtigai bakoak. Barne Ministerioak halaxe agindu du, arau berri batekin.

Jose Mari Iparragirrek jarritako alardeko bertsoak

ABESBATZAK
Nafarrak On Garzia errege zutela, odolez estali zan bai Balde-junquera:

GUZTIOK
emen degu bandera, upa Euskal-erria! eta Antzuola'rentzat onra eta gloria.

GUZTIOK
afrikanoak, orruz legoia bezala, zioten kristau bizirik utzi bear ez zela.

ABESBATZAK
San Juan Uzarraga'ko seme txit argiak ziran Balde-junqueran irabazliak;

ABESBATZAK
Baiña euskaldunak, Laurak bat aurrera! zioten: fedeagatik danok ilgo gera;

GUZTIOK
batzar etxean dauden illargi erdiak dira Antzuola'rentzat txit onragarriak.

GUZTIOK
Jo!... jo eta ez eman pauso bat atzera... gurea izan arte mairuen bandera.

ABESBATZAK
Esan, adiskideak, orduan bezala, Nafarroakin gaur ere anaiak gerala;


ABESBATZAK
Mutillak...ara non dan illargi erdia; arrapatu dezagun naiz galdu bizia;

GUZTIOK
bat da gure izarra, bat gure bandera: esan beti Laurak-bat izan nahi dugula.

HIRU
ARROZTEGIA

K21

Ondo pasau jaixak!



- ATEAK
- LEIHOAK
- ZORUAK
- HORMA ARMAIRUAK

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
 - PNEUMATIKOAK
 - HIDRAULIKOAK
 - MEKANIKOAK
 - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL.: 943 786000
FAXA: 943 766008 - 943 787095
E-MAILA: goizper@goizper.com
Web gunea: www.goizper.com

